# DIRU SARRERA

Gure helburua, esan bezala, gure produktua edozein motatako bezeroarentzako zuzenduta egotea da. Nahiz merkea ez izan, lortu nahi dugu mota askoko jendea erostea aterkia.

Arazoren bat edukitzekotan, enpresaren kostu guztia 50.000€-koa izango da, hau izango da gure diru-sarreraren kopurua. Honekin, berez, diru nahikoa izango dugu aterkiak egiteko, alokairua erosteko eta langileak kontratatzeko. Makinak baita ere beharrezkoak ditugu,txipa eta kaxa egiteko.

Alde batetik gure produktuaren bi gauza garrantzitsuak ditugu; txipa eta kutxa. Txipa egiteko, 2€-ko kostua izango duela bakoitzak. Aldiz, kaxaren kostua 1,65€-koa izango dela gutxi gora-behera pentsatu dugu. Bestalde, kalitatezko aterkia erosiko dugu, honek, gehiago ordainaraztea behartuko gaitu, baina gure bezeroek erosiko dutenarekin oreka bat mantentzea lortuko dugunez, ez dago kezkarik.



Aurrekoarekin jarraituz, koloretako aterkiak 10€-ko kostua izango dute eta beltza kolorekoak, berriz, 7€. Aterki kopuru handiagoa eta enpresa bat garenez, “Ezpeleta” enpresarekin harreman estua dugunez, 4€ eta 3€-ra salduko dizkigute, honek, 6€ eta 4€-ko aldea utziko du, eta esan

dezakegu, abantail bat bezala hartu dezakegula. Beraz, kalkulu guztiak botata, guztira 6,65€ eta 7,65€ bailoko du Etorkiak egiteko.

Kontuan hartuz aurretik egindakoa eta hasierako diruarekin, aterkia 30€-ra hasiko gara saltzen. Honekin 23,35€ eta 22,35€-ko etekina lortuko dugu. Hasiera batean egindako kostu guztiak ordaintzean edo lortzean, Etorkiaren prezioa 25€-tara jeitsiko dugu, honekin lortuko duguna da jende gehiagorentzako eskuragarria izatea.

Diru kostu guztiak estaltzeko asmoarekin, gutxi gora-behera kalkulatu dugu 240 aterki salduko ditugula hilabetean, baino gero zifra hau handituko dugu. Kalkulu horrekin urte bat pasa ondoren, 66.000€-ko etekin totala aterako dugu baina beste kostuekin 11.787,5€ etekinean geratzen da, baina urte bat pasa ondoren eta aterkien zifra handitzean lortuko dugun etekina nahikoa izango da kostuak estaltzeko. Orduan lehenengo urtea Aipatzekoa da irabaziak atera arte ez dugula dirurik bilduko, gure langilee ezik, haien lan eta lan-orduengatik kobratuko dutelako. Bazkide bakopitzaren ekarpenak, 7500€ jarri beharko ditu hasiera batean.